

U-27ko grebak jarraipen handia izan du herrian

ELA, LAB, Stee-eilas, Ehne, Hiru eta CNTk pentsioen eraldaketaren aurka greba deialdia egin zuten atzo



Kotxe bozina ugari entzun ziren Lasarte-Oriako kaleetan, bai astezkenean baita atzo ere.

Goiz goizetik kotxe bozina izan ziren nagusi Lasarte-Orian. LABeko kotxe karabana batek greba orokor baten egunean ginela gogoratu zuen. Pikete informatiboak ere ikusi ziren herriko kaleetatik zehar, irekita aurkitzen zituzten negozio gutxi batzuei greba orokorren zergatia eta helburuaren informazioa emateko asmoz.

Lanik ez egiteko eskatu zieten langile hauei, aurka dituzten agintarien jokabidea salatze, konkretuki pentsio sistema publikoaren aurka hartuko diren erabakiak arbuiatzeko (adina 67 urtera luzatzea, kotizazio urteak gehitzea edota erretiroaren kalkuluan urte gehiago kontutan hartzea besteak beste).

Jarraipen handia

Arrazoi hauek pisuzkoak dira langileriarentzako eta Lasarte-Orian behintzat, U-27ko

greba orokorrak jarraipen handia izan zuen. Dendak, bankuak, harategiak, ikastolak, tabernak... itxi egin zituzten. Atzokoa igande itxurako osteguna zen. Jende gutxiago kaleetan eta baita herriko errepideetan ere.

Euskal Herriko hiriburuak

Lehen aipatu bezala pikete informatibo eta kotxe karabana ikusi ahal izan genituen atzoko egunean zehar herrian. Manifestazio eta kontzentrazioak aldiz, Euskal Herriko hiriburuetan antolatu zituzten greba orokorrerako deia egindako sindikatuek. Donostian, goizeko 11:45ean Sagues, Antigu eta Anoetatik hiru martxa atera ziren, Buen Pastorren elkartze eta 12:30etik aurrera manifestazio bateratua egiteko.

Atzo herritarrek pentsioen eraldaketaren kontra batu eta protesta egin zuten. •



Goizeko 8etan pikete informatiboak herriko kaleetan barna grebaren nondik norakoak azaltzen ibili ziren.



Loidi-Barreneko padel pista eta rokodromo berriak martxan dira dagoeneko /3

KIROLA /6

Donostiako LVI. Nazioarteko krosa eta Gipuzkoako kros txapelketak Hipodromoan



Tabakoaren kontrako legea eta bere ondorioak aztergai /4-5



MATRIKULA DBH-ESO
ZABALIK ABIERTA
urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra
del 31 de enero al 11 de febrero

zatoz ven!!

Ikastetxea ikusteko aukera 29
Puertas abiertas



SALESIANOS URNIETA SALESIARRAK

Ergoien auzoa, 6
Telf. 943 551 789

www.salesianosurnieta.com

Modelo "D" Eredua

urtarrilak / enero
11:00etan / 11:00h

Zorion-agurrak



Merche eta Imanol

Zorionak bikote! Bihar txokolatzeko hamaika muxu goxo emango dizkizuegu!



Amaia

Zorionak polita! Ama-txo eta familiaren partetik txokomarrubizko muxu goxoak!



Nerea

Zorionak Nerea! Sei muxu handi gurasoen, aiton-amona eta izabaren partetik.



Peru

Zorionak Peru! Oso ondo pasa eta 7 Muxu handi! Zure famili eta lagunen partetik



Aitor

Zorionak! Onena zara! Segi horrela. Asko maite zaitugu. PIRA-TA!!!



Ander eta Oscar

Zorionak bikote familiaren partetik !Txintxo ibili ospakizunetan, baina hori bai, oso ondo pasa masapasa!



Amaia

Zorionak bihurri!! Oso ondo pasa ... urtebetetzean eta ez ahaztu, merienda zure kontu!!



Amaia

Zorionak! 12 muxu handi Borja, Sandra eta Patriziaren partetik. Ondo pasa!



Karla eta June

Zorionak maitiak! Oso ondo pasa zuen festan eta muxu pila bat, goxo goxoak etxekoen eta familiaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Garaje bat salgai edo errentan jartzen dut Lasarte-Orian, Manuel Lekuona kultur etxeko eremuko etxebizitzetan. Harremanetarako telefono zenbakia, 610 961 369.

• Garaje bat alokatzen da Lasarte-Orian, Green plazan. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 492 558.

• Lasarte-Orian lokal bat alokatzen da. Interesaturik daudenak 615 735180 telefono zenbakira deitu dezakete.

Salerosketak

• Mobilhome bat saltzen da Nafarroan, Oliten, hain zuzen ere. Harremanetarako telefono zenbakia: 626 057 485.

• Umea eramateko mendiko motxila erosi nahiko nuke. Harremanetarako telefono zenbakia: 647 973 854.

Lan-eskaintzak

• Begirale bat behar da ikasturtean zehar lanean aritzeko. Baloratuko da: begirale titulua eta esperientzia izatea, trebezia sozialak izatea, informatika ezagutzak. Tel.: 943 371448, posta elektronikoa: zerbitzuak@ttakun.com.

• Klase partikularak ematen ditut: Euskera, ingelera, gaztelera, matematika... Harremanetarako telefono zenbakia: 693 601 222.

Lan-eskariak

• Frantseseko klaseak ematen ditut, baita frantseseko mintzapraktika egin ere. Itzulpenak ere egiten ditut. Tituluduna. Harremanetarako telefono zenbakia: 680 581 914.

• Eskarmentu eta esperientzia handiko gizon bat lan bila dabil. Prest edozein lanetarako. Harremanetarako telefono zenbakia: 642 904 433, Jon.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 28

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 29

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 30

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 31

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 1

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 2

Urbisondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Osteguna, 3

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Hiribusaren ordutegia

Lanegunetan



www.tsst.info 943.361.741
Lasarte-Oria

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako
Zerbitzua ... 943 376184
Kirolegia ... 943 376182
Kulturetxea ... 943 376181
Zerbitzu Sozialak ... 943 376179
KIUB ... 943 361605
Udal euskaltegia ... 943 361621
Munteri AEK
euskaltegia ... 943 372863

Heriotzak

- Lucia Olloquiegui Berregui, urtarriaren 18an, 84 urte zituela
- Jose Maria Arruti Borda, urtarriaren 17an, 63 urte zituela
- Antonio Herrera Camacho, urtarriaren 14an, 74 urte zituela
- Manuel Dominguez Gascon, urtarriaren 13an, 88 urte zituela

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea




GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Padel pista martxan da, baina oraindik ezin da erabili. Trinketearekin bezala, polikiroldegian hartu beharko da ordura

Rokodromo eta padel pista berriak martxan dira

Mikel Cabieces Gobernu zentralako ordezkariak E-Planaren barruan burututako lanak ikuskatu zituen

Lasarte-Oriako kirol instalazioak asteartetik padel pista eta rokodromo berriekin osatu dira. Loidi-Barreneko ekipamenduan egin diren lanen bigarren fasea izan da eta funtzionamenduan zegoen frontoiari batu zaizkio. Aipatutako obra hauek Gobernu zentralak martxan jarritako Tokiko Enplegu eta Egonkortasunerako Estatuko Funtzarekin finantzatu dira.

Jesu Zaballos herriko alkateak Mikel Cabieces, Gobernuak Euskadin duen ordezkariarekin eta Pedro Luis Río Oyarbide, Gobernuak Gipuzkoan duen delegatuordearekin, bisitatu zituen insta-

lazio berriak. 2009an hasitako proiektu honen bigarren eta azken fase honetan padelaren ekipamendua jarri da, rokodromoa egin, frontoiaren frontisa eta instalazio elektrikoak, ingurua urbanizatzeaz gain. Zerbitzuaren gestioa udal kiroldegitik egingo da, eta erabili nahi dutenek bertan egin beharko dituzte erreserbak.

Bigarren fase honek 675.000 euroko aurrekontua izan du, eta lehenengo fasekoari batuta 1,3 milioi euro kostatu da kirol instalazioa.

Komun publikoa

Kirol instalazio hauen ondoren, herrian jarri nahi diren

hiru komun publikoetatik lehena jarri da. Pertsona guztiei egokitu da eta bera bakarrik garbitzen da.

E-Planaren garrantzia

Mikel Cabieces-ek E-Plana udaletxeentzako garrantzitsua izan dela aipatu zuen "Lasarte-Oriak baliabideak modu eraginkor batean nola bideratu daitezkeen erakutsi digu" gaineratuz.

Bestetik Zaballosek "plan honi esker herriarekin hartutako konpromisoak bete ditugu eta horrez gain, 15 pertsonen lana eman diegu, 51 kirol instalazioetan eta 10i Gaztelekuan" azaldu zuen. •

Euskal presoen lagun taldearen eskertza

Presoak gertuago

Lasarte-Oriako Euskal presoen lagun taldeak urtarrilaren 7ko poesia irakurketaren balorazioa egin du eta eskerrak eman nahi dizkie ekimenean parte hartuz Xirimiri elkartearen elkartu ziren herritarrei.

"Aurrez testuak jaso eta aukeraketari heldu gintzaizkionean, sumatu genuen gogoaren itsasoan egingo genuela arraun. Hala izan da. Gogoz aritu gara eta eskatu ahala etorri zaigu laguntza. Horregatik 30 lagunetik gora sartu dira errezitaldirako testuen uretan, azken batean, horiek guztiek urrutiko espekteetatik jasotako hitzei musika, gorputza, ahotsa eta aurpegia jartzeko lanari heldu diote" adierazten dute.

Horregatik, "eskerrak taldeen aritu diren guztiei: elkarteak okasiorako egokitzen, soinu, doinu ala ahotsa jendaurrean jartzen; argi, irudi eta testuak itzalean jartzen; eta sukaldean aritu zirenei, ekimenak afalostekoa ere izan zezan" eransten dute.

Urtarrilaren 7an Xirimiriko ekitaldian parte hartu zutenek ikusleen eskerrak eta agur beroak jasotzeko aukera izan zuten, baina, hala ere, ikusle modura joan zirenei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzailerak.

"Sentipen ugari piztu digu errezitaldiak. Jarritakoaren proportzioan jasotzen da. Pentsamendu matematiko hori ez da errezitaldiarekin bete. Jarritakoa baino gehiago jaso dugulako," azpimarratzen dute.

"Ausartegia badirudi ere eta pixka bat bada ere, ziegetan sakabanatuta dauzkaten senide/lagunen larruan sartu garelako iruditu zaigu. Haien hitzen bidez euren nahi, pentsamendu, sentipen edo eguneroko uneak gertuago sentitu ditugu. Ziega bakartienetik ere, hitza bitarteko, gurekin partekatzeke erreparoa uxatuta bezala, gurekin izan dira," jakinarazten dute.

Horren guztiaren bidez, presoengandik gertu sentitu eta "askatasunera, maitasunera, adiskidetasunera, konpromisoa, bakardadara, tinkotasunera eraman gaituzue. Gozatu dugu eta ez genuke azkena izatea nahi." Eta "elkarren premia dugun artean izango da idatzte gehiago," atxikitzen dute.

"Presoak non, eta zenbat km-tara dauzkaten oso gogoa daukagu, bisitan joan edo eskutitz batek iristeko zenbat denbora ematen duen ikusiz esaterako. Esateko daukatena-ri leku egin diogu. Errezitaldiak bietako aukera eman digu: sakabanatuta eta zigortuta daukatela gogoratzeko batetik eta euren hitza emateko bestetik," adierazten dute.

Honenbestez, zuzenean jasotako arreta, txalo eta agurak testuen egileei iristea nahi dute. "Gurpila bueltaka jarrita, haiek guztiengana iritsi nahi dugulako. Gurpila ez dago geldirik. Iristeko dagoen konponbide demokratikoa, gurpilarri eragiten edo arraunean ari garelako helduko da," adierazten dute. •



Arg.: Urnietako Udala

Autoeskoletako arduradunak, Urnietako alkate eta Lasarte-Oriako teknikariarekin.

Gidabaimena euskaraz ateratzeak badu bere saria

Buruntzaldeko Udalek gida baimena euskaraz ateratzeko ekimena jarri zuten abian eremuko autoeskoletan iaz.

Gazteak animatzeko, gida baimenaren alde teorikoa doan eskuratzeko aukera

zuten. Asteartean, Urnietako Lekaio kulturetxean zozketa egin zen, Buruntzaldeko autoeskola bakoitzeko bat.

Eta gida baimena atera duten 34 gazteen artean, zortzi izan dira sariaren onuradun. •

Sozialistek web gunea estreinatu dute

Lasarte-Oriako alderdi sozialistak web gunea jarri du martxan, www.socialistaslasarteoria.com. Jesus Zaballos eta Iñaki Mugikak azaldu zuten, herriko alderdi sozialistak hemendik aurrera erabiliko duen tresnetariko bat da.

Gunean alderdi sozialistaren informazioa, berriak, boletinak, argazkiak eta bideoak ikusteko aukera dago, baita dokumentuak ere, hala nola, Udaltzarrerara eraman dituzten mozioak.

Era berean, Jesus Zaballosen atala dago. Honetan, alkatearen biografia eta argazkiez gain, blog-a ere egongo da.

"Herrian gertatzen diren gauzei buruzko iritzia eman gogoz dut eta jendeak esandakori erantzuteko aukera izango du," azaldu du alkateak.



Jesus Zaballos eta Iñaki Mugika sozialisten web gunearen aurkezpenean.

Proposamenak

Honetaz gain, web gunea honetan herritarren proposamenak biltzeko atal bat dago.

Hala ere, teknologia berriekin moldatzen ez diren herritarrek beste aukera bat dute, sozialisten herriko etxera hurbildu arratsalde batean

eta bertan proposamena azaltzea.

Martxoaren 4a arte hartuko dituzte eta hauteskudeetako egitarauan sartuko dituzte alderdi sozialistak. "Lasarte-Oria guztiona da eta guztiok egin behar dugu," adierazi zuen Zaballosek. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 29

10:30ean, Ostadar - Oiartzun (Emakumezkoen KDT F-11, txapelduen fasea) Michelinen.

12:00etan, Ostadar - Asoleu (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

13:45ean, Ostadar - Aretxabaleta (Infantilen ohorezko maila, txapelduen fasea) Michelinen.

15:30ean, Ostadar - Vasconia (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

17:15ean, Ostadar - Munibe (Erregional Goren) Michelinen.

10:00etan, Pasajes - Ostadar (Partehartze infantilak) Don Bosco, Errenterian.

15:30ean, Union Txiki Touring - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Fanderia, Errenterian.

16:00etan, Zumaia - Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Aita Mari, Zumaian.

17:15ean, Kostkas M.B. - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Matigoxotegi, Donostian.

Igandea 30

10:30ean, Ostadar - Vasconia (I. Kadetea, kopa) Michelinen.

12:15ean, Arrasate - Ostadar (Infanti txikiak, kopa) Mojategi, Arrasaten.

16:30ean, Aurerra de Ondarroa - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Zaldupe, Ondarroan.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 28

HERRIKO TXAPELKETA
19:45ean, Semblante Andaluz - Epel
20:40ean, Illun - Viña del Mar.

Larunbata 29

17:00etan, Garetxe Lazkao - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) J. M. Barandiaran kiroldegia, Lazkaon.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Ainhoa - Katakas
11:00etan, ISU Leihoak - Naiban
12:00etan, Lekuona Mena - Indaux
13:00etan, Morrison's - Oria krist.
15:00etan, Obelix - Buenetxea
16:00etan, Ilargi - Izarra

Igandea 30

HERRIKO TXAPELKETA
10:00etan, Izkiña - Ayete
11:00etan, IOB H.K. - Kalaberri Z

PILOTA

Ostirala 28

20:30ean, Gazteleku - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. seniorra) Arrate, Andoainen.

Larunbata 29

16:00etan, Intza - Urnieta (Udaberri txapelketa, eskuz binaka III. kadetea) Michelingo frontoian.

09:15ean, Intza I - Oiarpe 4

(Gipuzkoako trinketa txapelketa, finalerdia, eskuz binaka kadetea) Ametsa trinketa, Iruran.

16:00etan, Hondarribia - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka II. kadetea) Jostaldi, Hondarribian.

16:00etan, Oiarpe 4 - Intza (Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka alebinak 2. urtea) Madalensoro, Oiarztunen.

ATLETISMOA

Larunbata 29

10:30etatik aurrera, Landaberri ikastola eta Sasoea ikastetxeetako gazteek alebin eta infantil mailako pistako eskolarteko lehiaketako proba librea dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

Igandea 30

10:30etatik aurrera, hainbat herritarrek Donostiako XVI. Nazioarteko krosean parte hartuko dute, Donostiako Hipodromoan.

IGERIKETA

Larunbata 29

16:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko alebinek eta infantilek Kutxa sariko kanporaketak jokatuko dituzte, Irunen.

16:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko I. mailako infantil, junior eta absolutuek ligako 3. jardunaldia jokatuko dute Bergaran.

BOLA-JOKOA

Igandea 30

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak bikotekako txapelketako 2. jardunaldia jokatuko du, Mutiloan.

ERRUGBIA

Igandea 30

10:00etatik aurrera, Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako gaztetxoak topaketa dute, Logroñon.

Donostiako XVI. Nazioarteko Krosa igandean burutuko da

Maila desberdinetako Gipuzkoako kros txapelketak egingo dira

Urtarrileko azken igandea iritsi da eta horrekin batera, ohikoan den, Donostiako krosa.

XVI. Nazioarteko krosean gizezko mailan, Menjo keniatarra, 2008. urteko irabazlea da aukera gehien dituen.

Baina korrikalari honetaz gain, Sergei Lebed ukrainiarra eta beste bi atleta keniatarrek ere garaipena bilatuko dute. Hauek, Titus Mbishei eta Jacob Cheshari gaztea dira.

Estatuko hainbat korrikalari ere parte hartuko dute proba honetan eta aipatzekoak dira, Estatuko txapelketan hirugarren eta laugarren izan diren, Ricardo Serrano eta Alberto Lozano edota Sergio Sanchez ere bai.

Emakumeen lasterketari dagokionez, 2008. urteko irabazlea den Eunice Jepkorir, Goshu etiopea, Kambouchia marokiarra eta Ugandako Cheptegei atleta gaztea dira favoritoak.

Lasterketa honetan, estatuko ordezkariek, besteak beste, Nuria Fernandez, Gema Barrachina, Irene Alfonso edo Marisa Casanueva izango dira.

Herritarrek

Goiza osoan zehar, 10:30etan hasita, proba desberdinak



Hipodromoan adin eta nazio desberdinetako korrikalariak ikusiko dira igandean.

egongo dira Donostiako Hipodromoan.

Honela, lasterketa nagusia bino lehen, alebin, infantil, kadete, junior eta jubenil mailako Gipuzkoako txapelketak izango dira ikusgai.

Nagusi eta beterenen txapelketa ere lehiatuko da, baina hori nazioarteko lehiaketaren barruan izango da.

Hau 12:15ean hasiko da emakumeen lasterketarekin, eta 12:45ean, berriz, gizonen txanda izango da.

Lasterketa hauetako batzuetan herriko korrikalariak ikusteko aukera egongo da ziurrenik, hala nola, Gonzalo Sukunza, LOKEko Guillermo Huguet edo Pili Bodegas.

Sarrerak

Hipodromora hurbiltzeko asmoa duten herritarrek 10 euroko sarrera ordaindu beharko dute. Baina aurretik erosteko aukera badago, Servikutxaren edo federazioaren bitartez. Horetara egiten dutenek 6 eurota eskuratuko dituzte sarrerak.

Ibilgailu klasikoak

Honetaz gain, Krosko antolatzaileek RACVN-ren laguntzaz, I. Ibilgailu klasikoaren kontzentrazioa antolatu dute.

Hipodromoko aparkalekuan, 25 urte edo gehiagoko ibilgailuak kotxe, zein motorrak ikusteko aukera egongo da.

XVII. Pala txapelketan izena emateko epea astelehenean zabalduko da

Ostadar Kirol Fundazioak gomazko pilotarekin jokatuko XVII. Pala Txapelketa antolatu du. Astelehenean txapelketan izena emateko epea irekiko du eta otsailaren 11ra bitartean zabalik egongo da.

Ostadarrek antolatzen duen txapelketa honen ezaugarrietako bat gomazko pilotarekin jokatzen dela da.

Imanol Bardaji txapelketako antolatzaileak adierazi duenez, "honen helburua bertakoa den kirol modalitate hau herrian sustatea da. Horretarako parte hartzen duen bikote bakoitzetik behintzat bat herrikoa izan behar du, nahita nahiez."

Partidak aurreko edizioetan bezala, udal instalazioetako frontoian, Michelingo frontoian, jokatuko dira asteburuetan.



Gomazko Pala txapelketa otsailaren erdialdean hasi eta finalak maiatz aldera izango dira.

Edizio honetan parte hartu edo informazioa nahi dutenek Ostadarreko bulegoan, Geltoki kalea 25, eman behar dute izena, astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:00ak bitartean.

Honetaz gain, bilera bat egingo dute otsailaren 16ean,

arratsaldeko 19:00etan, Ostadarreko bulegoan. "Ezin bestekoa da bikoteetatik behintzat bat bilerara etortzea. Egun horretan taldeen zozketa egin eta txapelketaren funtzionamenduaren berri emango baitugu." •

Kiroletako oharrak

Errugbi topaketa Logroñon

Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako arduradunek jakin arazten dute, igandean Logroñora doan autobusa, 7:30ean aterako dela Michelingo kirol gunetik.


Ostadar futbol porra

Ostadar K.F. gogorazten du, futbol porrako bigarren itzuliko boletoko bihar 17:00ak arte bete ahaliko direla.

Egunero

Erakusketa

TXEFO, ARTEA TALERRA izeneko erakusketa ikusgai. Txefo Mendezen argazkiak dira. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan. EUSKARAZ.



Ostirala, 28

Kontzertua

CASANDRA ALVAREZ oboe joleak eta ALBERTO SAEZ organo joleak kontzertu eskainiko dute Danok Kideren Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.



Euskarazko antzerkia haurrentzat larunbatean kulturetxean

NORK IKUSI DU DULTZINA? haurrentzako antzerkia eskainiko du Agerre Teatro taldeak. Maite Agirrek idatzitako lan honek Miguel de Cervantesen "On Kixote" liburuarren pasarterik esanguratsuenak islatzen ditu, Agirrerren esanetan "obra honen ikuspegi zabala ematea baino, irakurzale-tasuna eragitea du helburu eta haurrei, liburuekin gauza asko egin daitezkeela adieraztea da, liburuekin zaila dela aspertzea".

BIHAR LARUNBATA 29
KULTURETXEAN 18:00ETAN
SARRERA 3, 30 EURO
EUSKARAZ

Kontzertua

GORA GORA KIDS taldearen emanaldia. Talde honek nagusiki rocka lantzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan. EUSKARAZ.



Igandea, 30

Zinea

HARRY POTTER Y LAS RELIQUIAS DE LA MUERTE filma eskainiko dute haurrentzat. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.



Ostirala 4

Santa Eskea

SANTA AGEDA BEZPERA eguna ospatzeko, Bertso Eskolako, Xumelako eta Musika Eskolako kideak eskean aterako dira herriko kaleetan zehar. Arratseko 19:30ean abiatuko dira Jalgi kafe-antzokitik.

Oharrak

Alboka txiki abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi zituen, urtarrilaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egiten da, astelehenetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, bi erloju, urrezko pulsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat eta MP3 bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikusatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Esazu irrati programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Elikagaien bilketa Sahararen alde

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Aldeko Elkarteak kideek Sahararen Aldeko Eskal Karabanarako elikagai bilketari ekin dio dagoeneko. Bilketaren azken eguna hilaren 29an izango da Urbil merkatal gunean.

Karabana honek elikagaiak errefuxiatuen kanpamentuetara eraman nahi ditu: arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak. Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue herriko ikastetxeetan eta supermerkatuetan edukiontzia aurkituko dituzue.

Santa Eskerako Erketzek entsaioak prestatu ditu

Urtero bezala, Erketz dantza taldeko kideak baserri base-ri ibiliko dira kantari Santa Ageda egunean, eskean. Horretarako entsaioa prestatu du ostiral honetan, hilaren 28an, iluntzeko 20:00etan Zumaburu eskolan duten lokalean. Animatu eta azaldu!

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Zer da Marasma Saretzen?

Gutun hau probestu nahi dugu Lasarte-Orian abiatu dugun proiektu baten berri emateko eta baita gure hausnarketa herriko gazteei helarazteko. Gure iritziz, nabarmena da azken hamarkadan eta bereziki azken urteotan gazteriaren ohitura eta joerak azko aldatu direla eta hain zuzen aldaketak hauei erantzutera datorren ekimena da Marasma Saretzen.

Aldaketak hauek egunerokotasunean begi bistan ditugun aldaketak dira, nahiz eta hauek poliki-poliki ia era naturalean txertatzen joan diren. Sistema kapitalistak sortu dituen behar berriek eragin handia izan dute guzti honetan. Gazteriaren komunikatzeko ohiturak aldatu

dira; politikarekiko ikuspegi negatiboa ugaritu da (politika bere zentzu hertsienean ulertzeraino); belaunaldi ezberdinen arteko harremanak galdu dira eta gainera gazteriak bere kolektibo izaera galdu du erabat indibidualizatzeraino. Berezkoa dugun izaera errebelde eta inkonformista galdu eta sistema kapitalistaren kontsumorako produktu bikaina bilakatu gara.

Guzti honek gazteok gazte izateagatik bizi dugun problematika ezkutatzea ekarri du, ez baitago ukatzerik gazteok problematika bat bizi dugula. Jendarteak orokorrean dituen arazoak are nabarmenago bizi ohi ditu gazteriak gazte izate hutsagatik. Gure herrian, batez ere, geure burua antolatzeke guneen falta larria bizi dugu; prekaritatea; sistemak bul-

tzatzen dituen harreman ereduak... Gazteok gure kolektibo izaera galtzarekin batera gazte problematikaren kontzientzia ere galdu dugula esan genezake.

Euskal Herrian euskaldun izateagatik dugun problematika erantsia ere ezin dugu ahaztu. Euskal Herriari bizi duen zapalkuntza egoeraren ondorioz eta bizi duen asimilazio kulturalaren ondorioz nabarmena da egun ezin dezakegula euskal gazte kolektiboaz hitz egin. Ezberdintasun kultural nabarmenak daude euskal gazteriaren artean eta bereziki nabarmena da Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoako gazteen eta Nafarroa Garaia, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako gazteen artean dauden ezberdintasunak.

Hortaz, Marasma, gazte

kontzientzia berpiztu eta gazterian motibazioa piztu nahi duen prozesua da. Gazteria elkar ezagutzea, zerk kezkatzen gaituen jakitea eta gauzak aldatzeko gai garela ikusi araztea da Marasma Saretzen-en helburua. Gazteok iraultza egin behar dugu eta horretarako gai gara, eguneroko gauza txikiak aldatuz egiten baita iraultza. Gazte bakoitza gara iraultzarako subjektua, gugandik hasten da kolektiboaren arazoei buelta eman-go dien iraultza. Amaitzeko, herriko gazte guztiei animatu nahi dizuegu gure proiektuan parte hartzera, ezberdintasunak alde batera utzi, komunean ditugun helburuen alde borrokatuz.

Lasarte-Oriako Marasma

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu,
geureak direlako

Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak
elkarrekin joateko

Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez
Ingelesa: atzerrira begira



Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria,
informatika,... gure tresnak direla

Behar berezia duten ikasleentzako:
gertuko jarraipena eta aholkulariak



Liburutegi eta mediateka zerbitzua
Eskola ordutik kanpoko jarduerak

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikinean

Haur Hezkuntza
Zumaburuko eraikinean



Haur Hezkuntzako ikasleentzat goiz txokoak
Jangela zerbitzua
Garraio zerbitzua

BILERA EGUNA

Otsailaren 3an arratsaldeko 17:00etan bi bilera izango dira,
bat euskaraz bestea gazteleraz, Zumaburu eraikinean

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Urtarrilaren 31tik Otsailaren 11ra
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274

Lasarte-Orian,
geure herrian!

